
Euskararen erabileraren aldeko motibazioak gazteengan¹

Alvarez Iruguenpagate, Libe

libeiruguenpagate@gmail.com

E

Esplorazio-ikerketak honek 15-16 urteko gazteen errealitate soziolinguistikoa aztertzen du. Honen helburua gazteek euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko dituzten arrazoiak identifikatzea da. Benekotasun hori azaltzeko gazteei eman zaie hitz egiteko txanda. Informazioa eskuratzeko hiru tresna erabili dira: galdetegiak, focus-group-ak eta banakako elkarrizketak. Emaitzak emankorrak izan dira, eta ikusi da gazteen jarrerak gizarteko aurreiritzi eta arau sozialek baldintzatzen dituztela. Aitorpen gogorak egin dituzte gaztetxoek, non, aukera eza, menpekotasun-sentsazioa, hizkuntza erabiltzeko lotsa edota erruduntasuna aipatu dituzten, besteak beste.

Giltza-hitzak: Hizkuntza gutxitua. Euskararen erabilera. Gazteak. Motibazioa. Hizkuntzarekiko jarrerak.

Jakina denez², azken urteetako globalizazioak gizartearen funtzionamendua aldatu du eta ondorioz, aldaketa konstantea pairatzen du honek, baita hizkuntzen alorrak ere. Azken hamarkadetan, gure gizarte hurbilean euskara eta honen erabilera asko aztertu dira, hauen egoera oso aldakorra izan baita. Hori dela eta ikerketa anitz egin dira euskararen ezaugarri eta berezitasunak aztertzeko asmoz, ikerketa horiek egitea ezinbestekoa da hizkuntzaren errealitatea ezagutzeko, baina ez da nahikoa. Sarri euskara fenomeno isolatu gisa ulertzen da baina hori ez da egia, izan ere, euskararen egoera antzekoa duten beste hizkuntza batzuk ere badaude munduan. Eta horixe da hain zuzen ere gure egoera ulertzeko lehenengo urratsa: euskararen errealitatea kontestualizatzea.

1. Hizkuntza gutxituen egoera Europa mailan

Jarraian Europako hizkuntza gutxituen errealitatea aztertuko da, euskararena barne eta horretarako AILA Review dokumentuan jasotako datuak erabiliko dira. Dokumentuan zehar gehien aipatzen diren hizkuntza gutxituak euskara, katalana, frisiarra, irlandera eta galesa dira; Cummins-ek (2008) horiek “unique minority languages” gisa definitu zituen, euskarara itzuliz gero “hizkuntza gutxitu bakan”-ak izango lirakeenak. Egindako

definizioa justifikatzeko asmoz, autoreak azaltzen du hizkuntza gutxitu horiek funtzionaltasun gutxi dutela hurbileko esparrutik at eta zonaldearen barruan ere gutxitan omen dira beharrezkoak, biztanleria osoak menperatzen baitu hizkuntza nagusia. Bestalde, Cummins-ek (2008) euskara eta katalanaren aldeko suspertzea azpimarratzen du; izan ere, frisiarra, irlandera eta galesaren arrakastak ez da hain nabarmenak izan. Suspertze horretan hezkuntzak zerikusi handia izan du, murgiltze eta elebidun programei esker ikasle askok eskuratu baitute jariatortasuna hizkuntza gutxituan.

AILA dokumentuko datuak aztertuz gero argi ikusi daiteke euskarak antzekotasun anitz partekatzen dituela Galesa eta Irlandarekin. Batetik, galesa eta euskararen kasuetan hezkuntza-sistemak garrantzi handia izan du, ezagutzan izugarriko gorakada ekarri baitu. Horrez gain, hiritarrek sarri hizkuntza gutxitu horiei konnotazio baserritar bat atxikitzen diete eta hizkuntza nagusiei (ingelera edo gaztelaniari), aldiz, konnotazio global eta modernoago bat. Bestetik, irlandera eta euskararen kasuetan hiztun batzuek jarrera ezkorra dute hizkuntzarekiko, beraien ustez ez baita erabilgarria edo interesgarria.

Horrez gain UNESCO Atlas of the World's Languages in Danger-en (Moseley, 2010) munduko hizkuntzen desagerpena mailaka antolatzen da eta sailkapen horren arabera euskara hizkuntza "ahul" edo "makal"-en taldean kokatzen da. Talde horren ezaugarriak hauek dira: ume gehienek hizkuntza horretan hitz egiten dute, baina erabilera eremu konkretu batzuetara mugatuta dago (adib. etxekora). Ondorioz, nahiz eta hizkuntza bakoitza bakana eta paregabea izan, argi dago lagungarria dela euskara beste hizkuntza gutxitu batzuekin alderatzea, antzekotasun anitz partekatzen baitituzte. Eta horrek zalantzarik gabe ulermen global eta osotuago bat eskaintzen du.

2. Euskararen ezagutza eta erabileraren arteko amildegia

Aurretik esan den moduan, azken hamarkadetan zehar euskararen egoera asko aldatu da. Denboran atzera begiraturuz gero ikus daiteke euskarak historia luzea duela atzetik. Honek barne hartzen ditu hizkuntza erabiltzeko debekuak, erradikazioak eta beste hizkuntza batzuk erabiltzeko inposizioak. Gertakari horiek atzean geratu diren arren,

egungo gizartearen oraindik sumatu egin daitezke horien ondorio eta kalteak.

1979. urterarte euskara ez zen Euskal Herriko hizkuntza ofizial gisa ezarri. Horren ostean, 1982an, euskararen normalizazio linguistikoa ezarri zen eta lege honi esker euskara erkidegoko identitatearen ikur ikusgai gisa aitortu eta gizabanakoaren integrazioarako tresna gisa ezarri zen. Urtebete beranduago, 1983an, irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautu zen eta egun ezagutzen diren hezkuntza-ereduak sortu ziren (A, B eta D ereduak). Urteak pasa ahala gero eta ikasle gehiagok aukeratzen dituzte euskal-ereduak eta horrek izugarriko gorakada ekarri du hiritarren euskararen ezagutzan. Euskalduntze prozesu hori ikusita edonork esango luke egoerak hoberantz egin duela baina gorakada hori ez da berbera izan hizkuntzaren alor guztietan.

Azken urtean, erabileraren alorra kezka zentral bilakatu da, hiritarren gehiagoak euskara dakien arren gutxik erabiltzen baitute beraien eguneroko bizitan. Hortaz, ezagutza eta erabilera ez dira parekoak eta hori argi ikusi daiteke D ereduko ikasleen egoera aztertuz gero, izan ere, eredu horretako ikasleek hizkuntza menperatzen dute baina ikasgelatik at oso gutxi mintzatzen dira euskaraz. Dena den, kontuan hartu behar da erabileraren alorra baieztapen hori baino haratago doala, hau da, euskara gutxi erabiltzen da orokorrean, baina aipatu beharra dago adin-tarte batzuetakoek (umeek esaterako) beste batzuetakoek (nerabeek) baino gehiago erabiltzen dutela. Egoera hori ulertzeko asmoz ikerketa asko burutu dira, autore batzuek identitatea aipatu dute erabileraren faktore gisa, beste batzuek atxikimendua etab. Eta hori izan da hain zuzen ere nire ikerketa sortzearen arrazoia: erabilera eta ezagutzaren artean dagoen amildegi grisa aztertzea.

3. Egindako ikerketa

Aurreko atalean azaldu den moduan euskararen ezagutza eta erabilera ez dira parekoak eta gainera aipatu da adin-tarte konkretu batzuetan beste batzuetan baino gutxiago erabiltzen dela hizkuntza. Hori dela eta nire ikerketa gazteen erabileran zentratu dut.

Ikerketa egiteko testuinguru oso konkretu bat aukeratu nuen. Horretarako EAEko datu orokorrak aztertu ziren, V. Mapa Soziolinguistikoa erabiliz, eta ikusi zen azken urteetan

euskaldun eta euskaldun hartzailen kopuruak gora egin duela. Egoera bereziki ona izan da Gipuzkoan eta ez hainbeste Araban eta Bizkaian. Arrazoi horrengatik ikerketa azken erdaldunagoak diren zonaldeetan egitea erabaki da, horretarako hiriburuak aukeratu dira: Gasteiz eta Bilbo hain zuzen ere. Zonaldea aukeratu ostean aztergaia zehatz-mehatz finkatu zen erabilerarena oso gai zabala baita, horretarako 4 ikerketa galdera proposatu ziren:

- Zein da gazteen euskararen erabilera?
- Zein faktorek eragiten dute euskararen erabileran?
- Zein da gazteek euskara egiteko duten motibazioa?
- Etorkezinari begira gazteek nola ikusten dute egoera?

3.1. Metodologia

Ikerketa galdera horiei erantzuna emateko metodologia konkretu bat proposatu zen. Prozesu horrek hiru urrats ditu: lagina aukeratzea, metodologia tresnak diseinatzea eta prozesua aurrera eramatea.

Arestian esan bezala **lagin** gisa gazteak aukeratu dira, ikerketa askotan aipatu baita gazteen erabileraren inguruko kezka (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2009). Gazte horiek 15-16 urte dituzte eta Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan daude. Beraietako batzuk Bilboko Begoñazpi ikastolara doaz da eta beste batzuk Gasteizko IES Mendebalde BHI-ra; baina denak dira D ereduak. Zentro bakoitzeko gela bakarra aukeratu da eta, beraz, lagina 47 ikaslekoa izan da. Generoari dagokionez, parte-hartzaileen % 54,2 emakumezkoa da eta % 45,8 gizonezkoa, nahiko parekatua alde horretatik.

Lagina aukeratu ostean **neurtzeko tresnak** diseinatu ziren: galdetegiak, focus-groupak eta banakako elkarrizketak hain zuzen ere. Ikerketa honen funtsa datu kualitatiboetan dagoen arren datu kuantitatibo batzuk jasotzea premiazko zat jo zen. Hortaz, **galdetegiak** egoera kontestualizatzeko erabili dira. Hauek 43 itemez osatuta daude eta bertan hizkuntzarekiko atxikimendua, zailtasunak, konnotazioak eta beste alor batzuk landu dira. Tresna honen erabilera autore askok defendatu dute, besteen artean gai subjektiboak ikertzea ahalbidetzen baitu (Grasso, 2006). Bestalde, **focus-groupak** egin ziren euskararen deskribapena, hurbiltasuna, erabilera, identitatea eta hizkuntza erabiltzeko motibazioa aztertzeko asmoz. Solasaldi hauek interakzioa bultzatzen dute eta ondorioz, baliagarriak dira ikuspegi, balore eta sinesmenak jorratzeko (Kitzinger, 1994).

Azkenik, **elkarrizketa sakonak** egin ziren datu kualitatiboetan sakontzeko asmoz, izan ere, hauek informazio konplexua ulertzea ahalbidetzen dute (Juaristi, 2003).

Aipatutako hiru tresnak diseinatu ostean **metodologiaren prozedura** aurrera eramane zen. Hasteko, ikerlaria eskoletara hurbildu eta baimenak banandu zituen; gurasoen baimen guztiak sinatuta eduki arte ez baitzen ezer egiten hasi. Lehenengo, Google Forms plataforma erabiliz galdetegiak egin ziren, kasu honetan 46 ikasleek parte hartu zuten. Gero, datuak aztertu eta tutorearen laguntzaz focus-groupeko partaideak aukeratu ziren, helburua talde heterogeneoak sortzea zelarik, aniztasuna aztertuz ulertzen baita errealitatea. Aukeraketaren ostean focus-groupak egin ziren, bertan gai ezberdinen inguruan eztabaidatu zelarik. Saio horien ostean, bigarren aukeraketa egin zen eta zentro bakoitzetik 4 ikasle aukeratu ziren, beraz, guztira 8 eta ondoren, elkarrizketa sakonak egin ziren beraiekin. Metodologia diseinatzerakoan kontuan hartu da ikasleak adin txikikoak direla eta, beraz, alde aurretik gazteen gurasoei baimena eskatu zaie eta uneoro zaindu dira beraien datuak eta konfidentzialtasuna.

3.2. Emaitza eta ondorioak

Aurretik azaldutako metodologia martxan jarri zen eta horietatik datu asko jaso ziren. Jarraian emaitzen interpretazioa egin eta ondorioak aurkeztuko dira. Horiek modu ordenatu batean azaltzeko kontuan hartuko dira ikerketa galderak, hauek informazioa modu argian antolatzea ahalbidetzen baitute.

1. Ikerketa galdera. Zein da gazteen euskararen erabilera?

Galdetegietan ikusi ahal izan da oro har euskarak presentzia ahula duela gazteen egunerokotasunean, izan ere, gutxi dira euskara hutsean aritzen diren gazteak; gehixeagok erabiltzen dituzte euskara eta gaztelania, biak; eta zalantzarik gabe, gehiengoak gaztelaniaz soilik mintzatzen da.

Eskolako alorrean, beraien ikaskideekin komunikatzeko ikasleek gaztelania aukeratzen dute eta irakasleekin jarduteko, aldiz, euskara. Bestalde, eskolatik at, gazteen kultura-konsumoa ere aztertu da eta ikusi da gehiengoak gaztelaniaz egiten duela; dena den irratia entzuterakoan euskararen presentziak gora egiten du. Egoera horren arrazoiak eskaintza urritasuna edo egokitasuna litzateke, hau da, ikasleei ez zaie dagoen eskaintza gustatzen (Quintanilla, 2014).

2. Ikerketa galdera. Zein faktorek eragiten dute euskararen erabileran?

Ikasleei galdera hau egin zitzaion eta beraien erantzunak aztertu zirenean baieztatu zen faktore gehien atzean arrazoi berbera ezkutatzeko dela: gizarreak ezarritako “arauak”, identifikatutako eragile asko (baliagarritasuna, konnotazioa...) aurreiritzietan oinarritzen baitira. Ikasle askok **baliagarritasuna** aipatzen dute euskararen erabilera oztopatzen duen eragile gisa eta van Benthem-ek (2000) azpimarratu zuen moduan erabilgarritasuna ukalezina da hizkuntzaren produktiorako.

Hiztunek hizkuntza baten inguruan duten **irudiak** ere asko eragin dezake erabileran eta pentsamolde horiek negatiboak baldin badira, ondorioak ere halakoxeak omen dira. Ikerketako datuetan ikusi da gazteek euskara hizkuntza *babesgabe*, txiki, zahar eta *ezezagun* gisa pertzibitzen dutela; eta gaztelania eta ingelese aldiz, hizkuntza *moderno* eta *boteretsu* gisa.

Irudiaren alorrekin loturik, ezinbestean aipatu behar da hizkuntzak izan duen eta oraindik egun duen **konnotazio politikoa**. Amorrotu et al-en (2009) ustez kutsu politizatuak euskararen egoera negatiboki eragin du; Odriozolak (2017), aldiz, egoera sozial eta kulturean irauteko beharrezkoa dela aipatzen du.

Beste faktore bat hiztunek **ingurune geografikoen** inguruan duten pertzepzioa da. Beste era batera esanda, gazteek Donostia eta oro har Gipuzkoa euskal zona gisa dituzte; eta Bilbo eta Gasteiz, aldiz, erdal guneak direla aitortzen dute aldi oro. Eta haratago doaz, izan ere, gazteek aipatzen dute eskualdearen arabera garrantzia gehiago edo gutxiago ematen zaiola euskarari gizarrean. Faktore honen atzean estereotipoak izkutatzeko dira (Etxenike, 2017) eta horiek ez diote mesederik egiten euskarari.

Adina beste eragile ahaltzu bat da hizkuntza-praktikari dagokionez, izan ere, gizarrean adin-tarte bakoitza hizkuntza konkretu batekin uztartzen da; esaterako haurtzaroa euskararekin eta nerabezarora gaztelaniarekin, eta horixe egiten dute gazteek ere. Joera horren arabera gazteen artean gaztelaniaz aritzea da ohikoena eta horri heltzen dira estu-estu, haurren hizkuntzatik aldentzeko asmoz. Fenomeno hori “euskararen bizitza-ziklo” gisa definitu zuen Iurrebasok (2012).

Hurrengo faktoreak sarri entzun ohi dugun “**euskara: euskaldunon hizkuntza**” esaldiarekin du lotura. Gazteek

euskarari erreferentzia egiteko “gure” hitza erabiltzen dute eta horrek euskaldun jendea hartzen du barne. Baina egungo gizarrean kultura, hizkuntza eta herrialde askotariko herritarrek bizi dira elkarrekin eta aurreko filosofiak kanpoan uzten ditu horiek. Odriozolak (2017) aldaketa baten premia aipatzen du, hizkuntzak etniarekin baino komunikatzeko gaitasunarekin loturik egon beharko bait luke.

Horrez gain, ikasleek aipatu dute **ez dutela hiztegi ez-formala ezagutzen**. Gazte gehien kasuan euskararen erabilera eskola-eremura mugatzen da eta bertan hizkuntza formala lantzen denez, hiztegi falta somatzen dute askok. Ondorioz, gazteek erregistro kolokiala, adierazkorra eta erakargarria erdaratik hartzeko joera dute (Zabaleta, 2007). Azkenik, aipatu beharra dago, ikasleek **D eredu euskara erabiltzeko aukeratzat** dutela eta Odriozolaren (2017) arabera gero eta arnagune gutxiago dago gizarrean eta, beraz, faktore honek eragin positiboa du erabileran.

3. Ikerketa galdera. Zein da gazteek euskara egiteko duten motibazioa?

Galdera honi behar bezala erantzuteko ikasleei bi azpi-galdera egin zitzaizkien. Lehenengoa hau da: zeintzuk dira ikasleek euskara erabiltzeko dituzten arrazoiak edo motibazio-iturriak?

Ikasleek lehengo aipatu zuten arrazoiak **derrigortasuna** da, hau da, gazteek euskara erabiltzen dute *negatiboak* edota *liskarrak* ekiditeko. Bigarren arrazoiak hizkuntzarekin **eroso sentitzea** da, beraz, kasu honetan gazteek hautua borondatez egin dute eta ez *presiopean* aurreko kasuan bezala. Askok aipatu den beste faktore bat **norbaitek beraiei euskaraz egitea** da, beraientzako hori elkarriketa euskaraz jarraitzeko arrazoi indartsu bat baita. Horren atzean segurtasun eza egon liteke, azken finean badirudi norbaiti euskaraz hitz egiteko lehenengo besteak erakutsi erakutsi behar du hizkuntza dakiela. Horrez gain, nola ez, **motibazio instrumentala** aipatu dute arrazoi gisa. Ikasleek azaldu dute euskara lana topatzeko edota EGA titulua gaintzeko helburuarekin erabiltzen dutela. Motibazio hau ohikoa da ikasle eta gurasoen artean (Amorrotu eta Ortega, 2009).

Erabiltzeko pizgarriekin jarraiki, euskara **hizkuntza sekretu gisa** erabiltzea pentsatu baino ohikoagoa omen da. Gazteek barre eta algaraz onartu zuten euskara funtzio horrekin sarri erabiltzen dutela, besteek ez ulertzeko. Horrez gain, batzuek

azaldu dute euskara beraien **identitatearen** parte dela eta horrexegatik erabiltzen dutela. Amaitzeko, ezinbestean aipatu behar da egindako behaketa bat. Ikusi ahal izan da euskara erabiltzen duten ikasleek amankomunean ezaugarri bat partekatzen dutela: euskalkiak erabiltzen dituztela. Behaketa hori Quintanillaren (2014) lanaren irakurketaren ondorioz burutu zen eta ideia baieztatu egin zen ikerketako datuetan.

Jarraian, ikerketa-galderaren bigarren azpi-galdera dator: zeintzuk dira ikasleek euskara ez erabiltzeko dituzten arrazoiak edo motibazio-iturriak?

Erabilera oztopatzen duen lehenengo arrazoia hau da: gazteek argi dute **gizartearen arabera euskara hizkuntza ahula** dela eta gaztelania, aldiz, ahalguztiduna. Horrek ondorioak ditu, zeren, bi hizkuntzek topo egiten dutenean euskaraz ari denak aldatu behar du bere hizkuntza gaztelaniara, azken honek ziurtzat jotzen baitu euskaraz dakienak gaztelaniaz ere badakiela. Odriozolaren (2017) arabera elebidun batentzako euskarak ezer gutxirako balio du, gaztelania ahalguztiduna baita. Praktikarako bigarren oztopoa **erreferente euskaldunen presentzia eza** da. Ikasleei beraien eredu edo idoloak nortzuk ziren galdetu zitzairen eta gehiengoak eredu erdaldunak zituela aitortu zuen. Aurreko arrazoiarekin loturik **euskarazko bizipen positiboaren urritasuna** dago. Ikasle gehienek kasuan euskararen erabilera eskola eremura mugatzen da eta, beraz, familiarekin eta lagunekin bizitako une goxo eta atseginak ez dira euskaraz ematen. Honek lotura zuzena du **atxikimenduaren** faktorearekin, izan ere, euskararekiko atxikimendua oso baxua da eta hau bizipenen alorrekin loturik egon liteke.

15-16 urte bitarteko ikasleek sarritan aipatu dute **hizkuntza-gaitasun eta zailtasunaren** ideia. Ikasleen ustez euskara gaztelania baino askoz ere hizkuntza zailagoa da eta hori ulergarria da, zeren, ikasleek hizkuntza bat zenbat eta gehiago praktikatu orduan eta zailtasun gutxiago izango dute (Odriozola, 2017). Horrez gain, batzuek aitortu dute euskara beraien ama-hizkuntza ez denez **akatsak egiteko beldurra** dutela eta hori saihesteko asmoz ez dute erabiltzen.

Jarraian, gazte hauen adinarekin loturiko arrazoi batzuk aipatuko dira. Batetik, **talde onarpenaren** arrazoia dago. Ikasleek azaltzen dute nerabezaro garaian “normalena” kuadrillan gaztelania erabiltzea dela, beraz, euskara erabiltzeak “normaltasunetik” irtetea suposatzen du, horren ondorioak bi izan daitezke: lotsa edota beraien hitzetan “rarito” baten

moduan gelditzea. Eta Deleuze eta Guattari-k (1989) azaldu zuten moduan, hizkuntzaren aurrean mendekotasuna erakusten du gizabanakoak bere biziraupena bermatzeko. Bestetik, **gaztelania erabiltzeko ohitura** aipatzen dute nerabeek eta beraiek azaltzen duten moduan usadio horretatik aldentzea ez da egiteko erraza. Azkenengo arrazoia hau da: nerabezaroa errebolta momentua da, eta hortaz, **arauei uko egiteko unea** da. Arau horien artean hizkuntzarenak daude eta ikastetxean euskara erabiltzea derrigorrezkoa denez ahal duten neurrian hori apurtzeko joera izaten dute (Quintanilla, 2014).

Euskaraz aritzea baldintzatu dezakeen beste arrazoi bat hizkuntza erabiltzeko **aukera eza** litzateke. Nerabe askok ez dute eskolaz kanpo euskaraz jarduteko aukerarik, esaterako familia kideek hizkuntza menperatzen ez dutelako. Horren harira etsipen-sentsazioa ere sumatu da gazteen ahotsetan, izan ere, euren arabera euskaraz egiteko **ahalegin extra** bat egin behar da. Beraien ustez gizarte eremu gehienetan euskara erabiltzea posible da baina horretarako berebiziko ahalegina egin behar da.

Euskararen erabilera oztopatzen duten arrazoiarekin amaitzeko, **irakaslearen jarrera** aipatu dute arrazoi gisa. Gazteen arabera ikasleek sarri jarrera gogaikarri eta inposatzaile bat bereganatzen dute euskararen alorrean eta horrek hizkuntza hori erabiltzeko gogo kentzen diela azaltzen dute. Gainera, ikasgelan euskara soilik erabiltzeak ikasle askok muga gisa ikusten dute, zeren, horrek beraien gaztelania edota ingeleseko errekursoak erabiltzea oztopatzen du. Argi dago, egungo gizartearen hizkuntzak nahasteko joera dagoela, garai bakoitzak hizkera berria baitakartza berorrek (Amonarriz, 2007).

Motibazioaren alor honi amaiera emateko ezinbestean aipatu behar da hurrengo aipua: “Batzuek euskararen aldeko hautua egin daukate, beste batzuek oraindik ez eta beste batzuek ez dute agian sekula egingo hautu hori” (Quintanilla, 2014, 114 or.).

4. Ikerketa galdera. Etorrizunari begira gazteek nola ikusten dute egoera?

Etorrizuneko egoerari dagokionez, ikasleek orokorrean aurreikuspen positiboak egiten dituzte, beraien ustez hezkuntzaren funtzioa dela eta gero eta jende gehiago baitago euskara ikasten. Datu kualitatiboaren arabera ikasle batzuek

hizkuntza babestu eta mantentzeko inplikazioa dute, beste batzuek, ordea, zeregin hori beste batzuen esku uzten dute, eginkizun horrek beraiekin zerikusirik izango ez balu bezala. Kontuak kontu, sentipen bat partekatzen dute gazte hauek: ez dute euskara galtzerik nahi. Beraietako batzuek euskara asko erabiltzen dute eta beste batzuek gutxi; beraietako batzuek hizkuntza oso gustuko dute eta gainerakoek ez asko, baina inork ez du euskara galtzerik nahi.

Laburbilduz, gazteek duten erabilera eskasa faktore anitzen ondorioa da. Horietako batzuk euskararen egoerarekin daude lotuta, esaterako konnotazio politikoarekin; beste batzuk arrazoi indibidualekin, esaterako hizkuntza gaitasuna, antsietatea edota taldearen onarpen beharra; eta gainerako arrazoiak gizartean hedatutako arauen ondorio dira, adinaren faktorea adibidez.

4. Ikerketa honek e5-arekin duen lotura

Testu honetan zehar aurkeztu eta azaldu den ikerketak lotura zuzena du Eusko Ikaskuntzaren e5 proiektuarekin. Proiektu horren helburuetariko bat etorkizunerako nahi ditugun agertokien konstelazioa irudikatzea da, baita konstelazio horretara iristeko ibilbidea eta ekite ekintzak diseinatzea ere. Hortaz, ikerketa txiki honek bere ekarpena egin dezake eta hori hurrengo taularen bidez islatuko da.

Jarraian egindako taula aztertuz gero ikusi daiteke ikerketa honek pista mamitsuak ematen dituela bai errealitatearen inguruan baita ekite alorretan ere. Hori dela eta, interesgarria izan liteke egiten diren ikerketa handiez gain (adib. ARRUE) ikerketa txikiak ere egitea, azken finean horiek dira lekuan-lekuko egoera zehatz azaltzen dutenak. Argi dago ikerketa txiki batek ez duela ideia bat orokortzeko besteko datu, baina badu bere alor indartsua: alor bat sakonean aztertzea ahalbidetzen du.

EKINTZAK	INPAKTUA	2040 URTEA
Euskara ikasteko aukerak eskuragarriago bilkatu (adib. Belarriprest).	Elebidun eta elebidun-hartzaile kopurua handitzea.	Hiztunen eskubide berdintasuna.
	Hizkuntza baliagarri egitea.	
Hedabide eta Interneteko euskarazko eskaintza handitu.	Euskarazko bizipen positiboak sortzea.	Euskararen konnotazio negatiboak ezabatzea.
Aisialdi eta kirol-esparruko euskarazko eskaintza handitu.	Erreferente euskaldunak hurbiltzea. Segurtasuna eskuratzea.	
Eskolan hiztegi-formala eta ez-formala landu.	Euskara eskolako hizkuntza izatetik komunikaziorako tresna bilakatzea.	Hizkuntzaren ardatz nagusia erabilgarritasuna izatea, eta ez zuzentasuna.
Aisialdi, kirol-esparru, hedabide eta Interneteko euskarazko eskaintza handitu.	Akatsak egiteko beldurrarekin amaitzea.	
Gramatika ikastea ez dadila ikaskuntzaren ardatza nagusi bilakatu.	Lagunarteko euskararen erabilera handitzea.	
Eskoletako filosofia aldatzea: euskara ez diren hizkuntzak erabiltzea ez da negatiboa jartzeko arrazoa; euskara sustatu ez inposatu.	Euskara eroso daudelako erabiltzea.	Errealitate eleanitza onartzea.
	Derrigortasuna atzean uztea.	

Bibliografia

- 138/1983 Dekretua, Uztailaren 11koa, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetuz. 2017-11-04an hartuta hemendik: http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/contenidos/decreto/bopv198301433/eu_def/index.shtml
- Amonarriz, K. (2007). Garai berriak, hizkera berriak. *Larrun aldizkaria*, (106), 12-13.
- Amorrortu, E. eta Ortega, A. (2009). Zergatik eskolaratzen dituzte gurasoek semealabak euskarazko hizkuntza-ereduetan?. *Euskera*, 54, 579-602. 2017-11-18an hartuta hemendik: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/74635.pdf>
- Amorrortu, E.; Ortega, A.; Idiazabal, I. eta Agirrebeitia, A. B. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2017-11-19an hartuta hemendik: https://www.ehu.es/documents/3120344/3130328/Euskarari+buruzko+jarrerak_2009.pdf
- Begoñazpi Ikastola (2018). Hezkuntza proiektua, nortasuna. 2017-12-05ean hartuta hemendik: <http://www.begonazpi.org/>
- Cummins, J. (2008). Foreword. In J. Cenoz eta D. Gorter (edk.). *Multilingualism and Minority Languages: Achievements and challenges in education*. *AILA Review*, 21, (1-3 orr.). Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 2018-03-10ean hartuta hemendik: <https://benjamins.com/catalog/aila.21>
- Deleuze, g. eta Guattari, F. (1989). *Mil mesetas: capitalismo y esquizofrenia*. Paris: Minuit. 2018-04-08an hartuta hemendik <https://filologiaunlp.files.wordpress.com/2011/08/mil-mesetas.pdf>
- Etxenike, A. (2017). *Euskararen erabilpenari buruzko datuen aurkezpena: diagnostiko laburra* [Bideoa] 2018-03-04an hartuta hemendik: <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/proiektuak/gazteak-euskara-binomio-dinamikoa-erabilera-sustatzeko-gakoak/pr-37/>
- Gipuzkoako Foru Aldundia. (2009). *Gazteen hizkuntza erabilerearen eragiten duten faktoreen azterketa*. 2018-01-04an hartuta hemendik: <http://www.soziolinguistika.eus/files/GazteenHizkuntzaErabilereEragitenDutenFaktoreenAzterketa.pdf>
- Grasso, L. (2006). *Encuestas. Elementos para su diseño y análisis*. Córdoba: Encuentro Grupo Editor.
- lurrebaso, I. (2012). Euskararen erabilerearen zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 84(3), 103-120. 2018-01-27an hartuta hemendik: <http://www.soziolinguistika.eus/files/1%C3%B1aki%20lurrebaso%20II.pdf>
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 2017-12-01ean hartuta hemendik: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15493/USWEB035407.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Kitzinger, J. (1994). The methodology of focus groups: the importance of interaction between research participants. *Sociology of Health*, 16(1), 103-21.
- Ley Organica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomia para el Pais Vasco. BOE 306 zenbakia, 22/12/1979. 2017-11-04an hartuta hemendik: <https://www.boe.es/boe/dias/1979/12/22/pdfs/A29357-29363.pdf>
- Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera. Comunidad Autónoma del País Vasco. BOPV 160 zenbakia, 16/12/1982. 2017-11-16an hartuta hemendik: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2012/BOE-A-2012-5539-consolidado.pdf>
- Mendebaldea BHI. (2018). Proiektuak, euskararen normalkuntza. 2018-01-05ean hartuta hemendik: <http://www.mendebaldea.hezkuntza.net/web/guest>
- Moseley, C. (ed.). (2010). *Atlas of the World's Languages in Danger*. Paris: UNESCO Publishing. Online version. 2017-11-20an hartuta hemendik: <http://www.unesco.org/culture/en/endangeredlanguages/atlas>
- Odriozola, J. M. (2017). *Nora goaz euskalduntasun honekin?* Donostia: Elkar argitaletxea.
- Quintanilla, M. (2014). Gazteak, hizkuntza eta hegemonia. Lekuan lekuko ikerketa antropologikoa Sorluzen. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 92-93(3-4), 87-120. 2017-12-18an hartuta hemendik: <http://www.berripapera.org/files/Maite%20Quintanilla.pdf>
- Van Benthem, J. (2000). Comments on A. Rubinstein s "Economics and Language". In A. Rubinstein (edk.), *Economics and language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Zabaleta, O. (2007). Aisian aixe mintza. *Larrun aldizkaria*, (106), 11-12. 2018-01-02an hartuta hemendik: <http://www.argia.eus/astekaria/docs/2074/azala/larrun-106x.pdf>

Oharrak

1. Ekarpen hau poster moduan aurkeztua izan zen Gasteizko kongresu saioan.
2. Lan hau Eusko Ikaskuntzak diruz lagundutako izen bereko Master Amaierako Lanean oinarrituta dago. 2017-2018 ikasturtean emandako laguntza, 'Gazteak-euskara binomio dinamikoa: erabilera sustatzeko gakoak' egitasmoan txertatzen da.